b

Antzinako europarren jatorrizko hizkuntza

Europako hainbat ibai eta leku-izenek euskal jatorriko hitzak dituzte. Azken Izotz Aroaren ondoren emandako izenak dira. Indo-germaniarren aurrekoak diren euskaldunekin daude estuki ahaidetuta Europa osoko gizakiak, oraindik ere. Teoria horren inguruko aurkikuntzen berri ematen dute hizkuntzalariek eta genetika-adituek, hurrengo ekarpenetan.

Kontinenteko jatorrizko hizkuntza euskara zen

Elisabeth Hamel eta Theo Vennemann

Alpe mendien aurrean dago Ebersberg, ikusgarri, Ebrach ibai txikiaren gainean. Oberbayer barrutiko hiri txikiaren atzean, oraindik ere baso handi bat zabaltzen da. Lekuaren izena animalia basatien ugaritasunetik datorrela dirudi. Hori erakusten du armarriko basurdeak ere, ordotsak edo apoteak, alemanieraz *Eber*.

Baina gaur egungo leku-izenaren zentzua oker dago. Izendapenaren jatorria ez da Erdi Arokoa, ezta zelten sasoikoa ere, baizik eta, ustez, aitzin-euskaldunen garaikoa: hau da, azken Izotz Aroaren ondoren eskualde hori Frantziako hegoaldetik etorritako gizakien garaikoa.

Europako kolonia, ibai, mendi, haran eta paisaien izen askoren jatorria hizkuntza indo-germaniarrenak baino aurrekoagoa izan liteke. Ezagutza berrien arabera, bereziki euskararekiko loturak daude. Horrek esan nahi du, garai batean gaur egungo euskaldunen jatorri bereko populazioak ia Europa osoan bizi zirela. Hauek, hain zuzen ere, antzinako euskaldunak edo, latinezko izendapenaren arabera, *baskoiak* ziren.

Emaitza bera eman dute hizkuntzalaritzatik guztiz independente diren genetika-ikerketek (ikusi 11. orrialdeko azalpena). Hori horrela, gaur egungo euskaldunak ez dira biologikoki berezia eta beste europarrekin gutxi ahaidetutako bazterreko talde bat. Aitzitik, beren ondare genetikoa, neurri harrigarri batean, Europa osoko biztanlerian agertzen da. Ez da gehiegizkoa esatea gu, europarrok, euskaldunak garela.

Aurkikuntza horiek azken hamar-hamabost mila urterainoko Europa jendeztatu zen moduari buruzko iritziak ezeztatzen dituzte, hau da, azken Izotz Arotik aurrera (duela 20.000 urte izan zuen azken puntu gorena). Saiakera asko egon dira gaur egungo europarrak eta beraien hizkuntzak nondik datozen azaltzeko.

Ikerketa horietan, euskaldunek beti izan dute leku berezi bat. Beren hizkuntza ez da indoeuroparra, beren jatorriaren inguruan hainbat zalantza egon dira, besteak beste betidanik hor dauden ala lurretik edo itsasotik etorritako etorkinak diren. Ikerlariek ez zieten inolako ahaidetasunik ikusten beste europarrekin. Izan ere, azken horiek, gaur arteko ikuspuntu nagusiaren arabera, azken hamar mila urteetako etorkinen ondorengoak zirelako, jatorriz Asia erdialdekoak edo Ekialde Hurbilekoak, nekazaritza eta hizkuntza indoeuroparrak ekarri zituztenak. Ugariago izanik, indoeuroparrek bertoko populazioa ordezkatu edo xurgatu zutela uste zen.

XIX. menderako, hizkuntzalariak antzemanda zeuden gure ibai, erreka eta itsaso askoren izenak oso zaharrak izan behar zutela. Horretaz gainera, aspalditik baieztatu zuten, jatorrizko populazioek agerpen geografikoak arau orokor bezela topografikoki ziren moduan “ibaia”, “mendia”, “ura” izendatzen zituztela; hau da, jatorrizko izendapenek zirena izendatzen zuten, eta ondorengo populazioek izendapen hauek berriro hartu zituzten, esanahia ulertu gabe. Kasu bakar moduan, baina, Europarentzat sarritan oso zaila da ezagutzea, gaur egungo izenen erroek zein hizkuntza zaharreko geruzatik datozen.

Aldiz, kokagune-izenak askoz gazteagotzat hartu ohi dira. Izen asko, ikertzaile batzuen arabera, garai historikoan sortu ziren, eta aipatutako iturri anitzak jarraiturik, beharbada Erdi Aroan.

Ibaien izenentzat eta beste agerpen geografiko batzuentzat arau bat betetzen da: zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta gehiago betetzen da. Europako izen askok daramate ibaien antzerako hitz-erro bera, era deigarri batean. Horrela daude *al-*/*alm-* izenak, adibidez *Aller*, *Alm* edo *Elz* (lehen, *Alantia*). Beste talde bat dira *var-*/*ver-* izenak, adibidez *Werre* edo *Warne*

izenetakoak. Era berean, *sal-/salm-* izenak dira asko (beste batzuen artean, *Saale*). Ikerkuntza berrien arabera, badago *is-*/*eis-* izenen talde handi bat ere, *Isar* eta *Eisack* bezelakoak, eta *ur-*/*aur-* izenak, *Urach* eta *Aurach* bezelakoak.

MICHEL PROUX ETA HENRI BIDAULT

Europako hego-mendebaldean Izotz Aroaren azken garaian Magdaleniar kultura sortu zen. Argazki honek horren irudi bat ematen du. Izotz Aroaren ondoren, kultura horren ordezkoek beren hizkuntza Europa osora eraman zuten. Horren arrastoak gaur egun arte aurkitzen dira gure inguruan.

Ondorio berak balio du leku-izen askorentzat ere. Alemaniako posta-kodeen liburuak zazpi udal ematen ditu *Ebersberg* izenarekin. Bederatzi leku *Ebersdorf* dira, hamasei *Ebersbach*. *Eber* elementuarekin hasten lekuak 80 dira osotara, *Eberau*-tik *Ebertsheim*-eraino.

Hizkuntza-fosil bizidunak

Frantzian ere doakien izen elementuekin agertzen diren lekuak dozenaka dira. Beste hizkuntza espazio batez baldintzaturik beste soinu bat hartzen diogu. Honela, *Ebréon*, *Ibarolle*, *Evrune*, *Ivry*, *Ivors*, *Averdon*, *Avricourt*, *Avrolle*, *Yvré* eta askoz gehiagok, guk ikertutakoaren arabera, hizkuntza-sustrai berberetara jotzen dute. Alabaina ez lituzke frantses batek ere izen horiek basurdearekin lotuko. Frantsesez "Eber" *sanglier* dalako.

Kokaguneen izenek Alpeetako iparraldetik Europa zeharkatuz Bretania Handiaraino eta Eskandinaviako hegoalderaino, harrigarrizko berdintasunak izatea harrigarria egin zitzaion Tübingen-eko indoeuropar hizkuntzalari Hans Krahe-ri (1898-1965). Izen horiek "iraganeko fosiltzat" hartu eta hizkuntza indoeuropar zaharretan bilatu zituen sustraiak.

Izenen jatorriaren bilaketa horiek, egia esan, ez dira onartuak izan askotan. Gainera, indoeuroparrak nahiko berandu agertu ziren. Colin Renfrew ingeles arkeologoaren teoria

baten arabera, azken horiek Europako lehenengo nekazariak ziren eta horiekin Neolitoa hasi zen Europan.

Onartzen denean, urek eta beste geografia-izenek aurretik desagertutako populazioetan dutela jatorria, Europarentzat ere, azken Izotz Aroaren ostean agertu ziren lehenengo kolonoak edo biztanleak hartu beharko lirateke kontuan. Duela 7.000 urte hasi ziren nekazariak kontinentean zehar Europa erdialderantz etortzen. Baina askoz lehenago birkolonizatu ziren azken Izotz Aroan guztiz bizitzeko desegokiak ziren lurraldeak. Horrela da arkeologoei ezaguna zaien azken izoztearen gorengo puntuaren ondoren luzaroan egon den eta goizena den jendeztatzea edo kolonizazioa Freiburg inguruan, Alemaniako Toskana izenez ezaguna dena, 18.000 urtetik gorakoa. Ziurrenik ere, giza talde haiek, antzinako europarrek, aurretik zeukaten ibaiei eta inguruko lekuei izenak jarrita. Horregatik, ez da baztertu behar berezko izen batzuk jadanik aipatutako aurreko fase horretakoak izatea. Gaur egun ere, munduko hainbat eskualdetan, etorkin-taldeek jatorrizko populazioaren geografia-izenak hartu eta beren hizkuntzara egokitu ohi dituzte, hitzen esanahia batere ulertu gabe.

Espainiako ibai eta errekasto batzuek Europako Alpeen iparraldean bezalako hitz-elementuak izatea antzinako indoeuroparrak uren izenak ezarri izanaren kontrako ebidentziatzat har daiteke. Izan ere, indoeuroparrak Kristo aurreko lehen milurtekoan heldu ziren lehenengoz hain urruti hego-mendebalderantz. Hauetariko Iberiako uren izenen jatorria hizkuntzalari batzuk askoz aurretik ere euskal hitzekin ahaidetutakoekin eratortzen zituzten. Hemen azaldutako teoriaren arabera, gainontzeko Europako uren izenak ere antzeko eran interpreta daitezke. Euskal hitz-ondarean edo lexikoan berariazko ezaugarriak dituzten hitz-elementuak aurkitzen dira *–is*, *ur* eta *ibar–*, Europako ur-leku askotan bezala. Guzti horiek, urarekin edo naturako urekin zerikusia duten esanahi bat daramate (ikusi 10. orrialdeko laukia).

Euskararekiko beste zantzu bat izen horien bokalek ematen dute. Gure ur zaharren izenen ia erdiak bokalez hasten dira. Gehien agertzen dena (alde batetik oraindik aurreko izen forma batean) *a* da eta izenek ere askotan *a* bokala daramate. *I* eta *u* ere uren izen askotan agertzen dira. Hori guztia ezohikoa da hizkuntza indoeuropar zaharrarentzat. Izenetan bokalak hitz hasieran oso gutxi zeuden eta gehien agertzen ziren bokalak *e* eta *o* ziren. Bestalde, euskarazko hitzen heren bat edo, *a*-z hasten da eta askok *a* bat edo gehiago daramate beren baitan. *I* eta *u* ere sarritan daude hitzen hasieran.

Azken urteetan Münich-eko germanistikako eta hizkuntzalaritza teorikoko irakaskuntzarako katedran, kokaguneen izenen jatorria modu berean ikertu da, eta hor ere askotan bistakoa da euskarazko hitzekiko edo hitz-elementuekiko lotura edo zerikusia. Orain arte egiaztatu den heinean, euskal hitzak aurkitzen ditugu batez ere beren kokapen abantailatsuagatik zaharrenetarikoak izan daitezkeen tokietan, geografia-agerpen naturaletan, hau da, topografia-hitzetan.

Askotan, baina ez beti, hidronimoetan nahiz paisaien zer-nolakoa adierazten duten leku-izenetan hitz zahar bat dago, "ur, ur-leku" esan nahi duena. Gatozen berriro *eber*-en adibidera. Frantziako *eber*-lekuetariko bat, *Ibarolle*, Pirinioetako haran batean dago. *Ibar* euskal hitzak "haran, ibai-aho" esan nahi duenez, hizkuntzalariek aspaldi eman zizkieten leku-izen horiei esanahi berdina.

ALOIS FREUNDL-REN BAIMENAREKIN; ARMARRIA: EBERSBERG HIRIA

Oberbayer-eko *Ebersberg* Erdi Aroan *Eberesperch* edo baita *Eparesperc* deitzen zen. Susmatu bezala, *eber* erroa euskararekin lotutako europar hizkuntza zahar batetik badator eta jatorrian *ibara* esaten bazen, *Ebersberg* ez litzateke basurdearen izenaren arabera deituko, baizik eta "ibaiko mendia" esan nahiko zuen. Izan ere, hiriaren ondotik Ebrach ibaia doa.

Horrela, Bavariako *Ebersberg*-en ondoko *Ebrach*, "ibaia" da –zehatzago, "ibaia-ibaia"–, beranduagoko *ach* horrek "ibaia" esan nahi baitu (latinezko *aqua*-rekin lotuta). Gure iritziz, kokalekuak ibaiaren izena hartu du (ikusi goiko irudia). *Eber* leku asko, guk orain arte ikertutakoaren arabera, duela milaka urte antzinako euskaraz hitz egiten zuen populazio batek emanak lirateke. Horrela, ur edo paisaientzako izendapena izenean sartuta gelditu da.

Handik milaka urtetara, gizakiek izenak aldatu zituzten, haientzat zentzu bat zeukaten beste hizkuntza batera: euskarazko *ibar*-tik, zehatzago esanda antzinako euskararekin loturiko hitz batetik, alemanierazko *Eber*-era pasatu zen, ibaia eta kokagunea izendatzeko.

Ohiko leku-izen gehiago ere urarekin daude loturik. Hor daude, adibidez, antzinako euskararen *is* elementua daramaten izen ugari. Euskeraz hitz konposatuen aurretik datorren silaba horrek "ura" edo "ur-lekuak" esan nahi du. Bavarian, adibidez, *Isamaning* (lehen, *Isamaninga*), *Isen* edo *Isenen* (lehen, *Isana*) eta *Eisolzried* (lehen, *Isoltesried*) daude, eta Suitzan *Isen* eta *Isel*.

Urarekin zer ikusirik ez duten natura-izenak ere badira. Euskarazko *aran*-ekin erlazionaturiko izenak Europa osoan daude. Ingalaterra hegoaldean *Arundel* hiria dago, Norvegian –bai eta Suedian ere– *Arendal*. Alemanian dozenaka leku daude *Arnach*, *Arnsberg*, *Arnstern*, *Arensburg*, *Ahrensburg* bezalakoak. Hor sartzen dira Odenwald-eko *Ohrenbach* (lehen, *Aranbach*) eta Palatinatu Garaiko *Mohrenstein* ere (lehen, *Marnstein* edo *am Arnstein*).

Herri transmisioaren arabera, horietako leku batzuk pertsonak izendatzeko erabilia izan da, *Arno*-ren antzera. Baina, oro har, gizakiek bere jatorrizko lekutik jasotzen zuten beren izena eta ez alderantziz. Beste *Arn*-leku batzuk ustez arranotik zetozen (*Aar* arranoa *Arn* zen goi-aleman zaharrean).

München ez dator fraideengandik

Itxura guztien arabera, *Arn* lekuak inguru oso aldapatsuetan egon ohi dira, eta hori *aran* hitzari ondo doakio. Holstein ekialdeko *Ahrensfelde* (*Ahrensburg* alboan) tunel antzeko bailara baten ertzean dago, gaur egun babestutako gune batean. Hor ere badirudi topografiaren arabera izendatu zela, jendeztatu zenean.

Herri-etimologiak uste baino zaharragoak dira beste leku-izen batzuk ere. Hala, zalantzak agertzen zirenean *München*-ek "fraideen aldean, *bei den Mönchen*" esan nahi ote zuen, hiriko jainkozaleak ez ziren haserretu bakarrak. Baliteke München-ek kristautasuna baino lehenago sortua izatea. Ustez, lehen *Munica* zen, hau da, "ur-bazterreko terraza". Euskarazko *mun* (lehenago, *bun*) "ertz, bazter, lubeta, ezponda, menditxo, tontor" da. Jatorrizko München mendixka batean dago kokatuta, Petersbergl-en, Isar ibaiaren ondoan. Baliteke *bun* zaharra grekozko *bounó* "mendia" hitzean irautea (greko zaharrean, *bounós* "tontor" da). Hitz hori ere mailegua da, adituen arabera.

Guzti horrek baieztatu egiten du hemen aurkeztutako teoria: hau da, euskararekin loturiko hizkuntzak zituzten antzinako europarrek jarri zituzten izen horiek. Izotz Aroan Europa hegoaldeko babeslekurik handienetariko batean bizirik iraun eta bertan hizkuntza komun bat garatu zuten gizakiek. Europa mendebaldeko kokagune egoki bakarra Frantziaren hego-mendebaldean eta Espainiaren ipar-mendebaldean zegoen. Han, atzera egiteko edo erretiratzeko kokagune tipiko batetan, Euskal Herriko Pirinioetan, oraindik euskaraz hitz egiten da.

Antzinako Europako protoeuskaldunek ez zituzten geografia-izenak bakarrik utzi. Herrialde batzuetan, zenbaketa-modu zahar baten arrastoak daude oraindik. Indoeuroparrek hamarnaka zenbatzeko sistema ekarri zuten. Aldiz, euskaldunek oraindik hogeinaka zenbatzen dute: "hogei", "hogeita hamar", "berrogei", "berrogeita hamar", "hirurogei" eta abar. Zelta indoeuroparrek proto-euskaldunengandik jaso zuten hogeinaka zenbatzeko sistema ziurrenik ere.

Hogeinakako sistema hori 360 arte erabiltzen zen frantses zaharrean, eta gaur arte mantendu dira arrastoak: *quatre-vingts* (laurogei), *quatre-vingt-dix* (laurogeita hamar). Danierak ere zenbatzeko era zahar hori gordetzen du.



SCHAPOWALOW / NACIVET

Ebroren gainean zutitzen da Pilarreko erromes-basilika Zaragozan. Duela milaka urte antzinako euskara egiten zuen populazio batetik datorkio izena ibaiari.

Guztiz bestelako era batean heltzen dio genetikak Izotz Aroaren ondorengo Europaren kolonizazioaren gaiari, eta antzeko ondorio harrigarrietara heltzen da. Genetista molekularren arabera, egungo Europako arbaso gehienak Europan bizi ziren Izotz Aroan. Ildo beretik, hizkuntzalariek lehenago suposatu bezala, Izotz Aroaren ostean Europa mendebaldeko kolonizazioa iberiar penintsularen iparraldetik eta Frantziako hegoaldetik burutu zen nagusiki (ikusi 16. orrialdeko irudia).

Garai historikoetako euskaldunak –erromatarrek *baskoi* deituak– gaur baino askoz hedatuago zeuden (ikusi beheko irudia). Horren lekuko da, besteak beste, Frantzia hegoaldeko Gascogne probintzia (lehen, Baskonia). Hala ere, euskaldunak erlikia-herritzat hartu izan dira gaur egun arte, ertz batean kokatuta egonik indoeuroparren aurka iraun izan duena. Funtsean, euskaldunak ez dira Europako beste populazioetatik genetikoki desberdintzen. Felix von Luschan antropologo eta etnologo austriarrak (1854-1924), gizakia arraza-jatorri desberdinetan zatitzearen kontrakoa zenak, 1922an idatzi zuen: "Ez nintzen inoiz gai izango haietariko bat bera ere euskalduntzat ezagutzeko."



THOMAS BRAUN / SPEKTRUM DER WISSENSCHAFT; ITURRIA: JESUS ALTUNA

Euskararen esparrua:
Gaur egun, iberiar penintsularen iparraldeko lurralde txiki batean bakarrik hitz egiten da euskara. Erromatarren garaian, baina, indoeuroparra ez den hizkuntza hau askoz hedatuagoa zegoen. Nonbait, Izotz Aroaren ostean, Europa zabalean gizakiek euskararekin ahaidetutako hizkuntzak hitz egiten zituzten.

Pirinioetatik eta Alpeetatik iparrera Europaren mendebaldeko azken Izotz Aroan bizitzeko modukoak ziren lurraldeetako gizakien artean euskara garatu zen, agian. Duela 18.000 urte, azken izotzaldiko puntu gorenaren ondoren glaziarrak urtzen hasi zirenean, gizaki haiek pixkanaka Europako ipar eta erdialderantz zabalduz joan ziren. Lurralde haiek ia gizakirik gabe zeuden eta etorri berriek beren hizkuntzako natura-izenekin izendatu zituzten ibaiak, mendiak, haranak eta padurak. Magdaleniar kultura ekarri zuten, ekialdean Mähren eta Thüringen-eraino. Alemaniako iparraldean orein-ehizaren kultura garatu zen, Pommern eta Britainiar Irletaraino heldu zena. Oraindik gaur egun, lehenago banandutako proto-euskararen aldaeretatik datoz Europa ekialdeko hainbat ur-izen, ziurrenik ere.

MICHEL PROUX ETA HENRI BIDAU JEAN-RENÉ CHATILLON

Magdalen aldiko ehiztariek mailarik gorenera ekarri zuten Europa mendebaldeko eta erdialdeko antzinako harri-kultura, elur-oreinen eta mamuten adarrez egindako artelanak eta tresnak, bai eta hizkuntza-elementuak ere.

Proto-euskarak arrastoak utzi ditu eguneroko alemanean ere. Proto-euskararen mailegutzat hartu ohi dira *Land* (herrialdea), *Harn* (txiza), *Schenkel* (izter), *Garbe* (belar-meta), *Mure* (arroka), *Anger* (zelai), *Haken* (kako), *Krapfen* "Kralle, Haken" (kako), Latte/Laden (taula), *Eisvogel* hondar-txori edo martin arrantzalea (lehen, *Is-arn*) eta *Senne* (mendi-zelai). Baina hitz batzuk latinetik etorri ziren. *Käse* (gazta) euskarazko *gazi*-tik latinetik etorri zitzaigun. *Mons* (mendi) eta *grandis* (handi) hitz latinoak proto-euskararen mailegu lirateke. Azentua hitzen lehen silaban jartzeko lege zaharra ere proto-euskaratik letorke; hori ekialdetik mendebaldera joandako hizkuntza guztietan –eta bakarrik horietan – betetzen da; germaniarrean, zeltan, latin zaharrean eta indoeuroparra ez den etruskoan.

Afrikako iparraldean euskarazko elementuak daudela jakitea ez da hain harritzekoa. Baliteke gizakiek aspaldi zentzu bietan gurutzatu izana Gibraltar; itsasartea gaur egun baino meheagoa zen Izotz Aroan. Azken berrogei mila urteetan Europaren hego-mendebaldeko eta Afrikaren iparraldeko kulturak paraleloki joan ziren.

Marokon badira leku eta ibaiak proto-euskarazko izen argiekin. Berbereraren Tachelhilt dialektoan, hogeiko sistemarekin zenbatzen da, euskaraz bezala, eta berbertar istorio asko Grimm ipuinen antzekoak dira. Berbertar enbor batzuen ezohiko azal zuria eta begi urdinak antzinako euskaldunekiko lotura izan litezke. Edonola ere, Algerian egindako ikerketa genetikoen arabera, europar lerro tipikoak dira ehuneko zortzi. Trukean, Espainian oinordetza-lerro berbertarrak daude.

Hala ere, proto-euskarak ez ezik, hizkuntza ez-indoeuropar gehiagok ere utzi dituzte Europan arrastoak. Ehun urte baino gehiago dira hizkuntza-ikerlariek hizkuntza hamitiko-semitikoen eragina aurkitu dutela Europako mendebaldean. Beraz, hizkuntza horietako gizakiak itsasoaren kostetatik iparralderantz joan ziren historiaurrean. Europa kolonizatzearen kondairak oraindik ezuste asko ditu prest.

Europako antzinako ur-izenak

Gure hizkuntza-iraganaren lekukoak

XIX. mendearen erdi aldera, Ernst Förstemann (1822-1906) germanista eta amerikanista alemanak geografia-izenak ikertzen zituelarik, "landu gabeko altxor"-tzat jotzen zituen antzinako ibaien izenak.

Espainiaren iparraldean, Ebro ibaia Mediterraneoan itsasoratzen da. Erromatarrek *Iberus* deitu zuten ibaia, eta hur doan lurraldean euskaraz hitz egiten zen erromatarren garaian ere. Izena euskaratik datorrela onartzen dute hizkuntza-ikerlariek, hain zuzen ere *ibai* eta *ibara*-tik.

Zergatik dute, baina, Europako beste ibai batzuek antzeko izena? Montenegron eta Serbian Moravia mendebalderantz Ibar ibaia doa, Alemaniaren hegoaldean *Ebrach* izeneko ibai bi eta *Eberbäche* batzuk, Hessen-eko Oberaula-n *Ibra* bat dago. Austriako *Ybbs* (lehen, *Ibisa*) izenean, Ybbs hiritik Donau-ra doana, ustez "ibai"-ren *ibaso* aldaera ezkutatzen da, eta horrek ere "ibai" esan nahi du.

Europako ibai askoren izenak, gutxi eta berdinak diren hitzetatik edo erroetatik datoz. Besteak beste, *is* agertzen da (edo *eis*) 200 ur-leku baino gehiagotan, Norvegiatik Italiaraino, Espainiatik Errusia urrun eta barruraino, Britainia Handitik Balkanetaraino (mapa): *Iselfjorden* Norvegian, *Isa* Italian, *Isainka* Errusian, *Ieslà* Lituanian, *Jizera* Txetxenian eta *Ijssel* Herbeheretan. Euskarazko *iz* elementuak "ur, ur-lekua" esan gura du.

Modu bertsuan daude hedatuta *ur* (aur), *var* (ver), *sal* (salm) edo *al* (alm) hitzen osagaietako izenak. *Ur*-ek "ur-lekua, errekastoa, latsa" esan nahi du. *Al*-ek eta *sal*-ek antzeko esanahiak dituzte. Ustez garai batean proto-euskarak zuen hedadura erakusten dute.

Ur-en adibide batzuk, beste askoren artean: *Urula* (Norvegia); *Irwell* (Britainia Handia); *Ourthe* (Belgika); *Auerbach*, *Urbach*, *Urach*, *Aurach* (Alemania); *Irrsee* (Austria); *Aroffe* –lehen, *Urofia*–, *Huriel* (Frantzia); *Urura*, *Urola* (Espainia); *Urwis* (Polonia); *Ura* (Errusia). Alemanian, *var*-en adibideak daude: *Warne*, *Werre*, *Warmenau*, *Warme Aue*; *sal*-en adibideak: *Saale*, *Sale*, *Selz* (*Salusia*), *Selke* (*Salica*); *al*-en adibideak: *Aller*, *Alm*, *Alme* bi aldiz (*Almana* eta *Almara*), *Ahla*, *Elte* (*Alantia*), *Elz*. Iberiar penintsulako erreka izen batzuk *Alba*, *Alenza*, *Almar*, *Almanza*, *Almonte*, *Almantes* dira, eta zerrendek jarraitu egiten dute.

Errro horietatik eta Europako antzinako beste erroetatik letozke hainbat kokaguneren izenak. Izen horiek, beraz, jatorrizko ur-leku batera edo beste leku natural batera garamatzate. Antzinako geografia-izen asko natura-izen hutsak ziren hasieran, antzinako europarren eguneroko hitzak.

THOMAS BRAUN / SPEKTRUM DER WISSENSCHAFT; ITURRIA: E. HAMEL



Hemen markatuta dauden ur-lekuek beraien izenetan emandako bost hitz-erroetatik bat daramate.

Gure geneen hiru laurden antzinako euskaldunetatik datoz

Elisabeth Hamel eta Peter Forster

Orain dela hogei urte inguru, Zeelanda Berriko Allan Wilson genetista molekularra, Kaliforniako Berkeley Unibertsitateko bere lana betetzen zuen bitartean, gizaki bizidunen DNA oinordetza-gaiaren atal aldaera bat konparatzen hasi zen, eta oinordetza molekularraren historiaurreko zuhaitz genealogikoa eratzen. Beste guztien gainetik eratu den ideiaren arabera, *Homo sapiens* gizaki modernoa duela 130.000 urte inguru Afrikan jaio, Ekialde Hurbiletik Asia, Europa eta gainerako mundura zabaldu eta lehengo gizaki formak baztertu zituen, adibidez Europan neanderthalak (ikusi *Spektrum der Wissenschaft* 12/85, 160. orrialdea eta 6/92, 72. orrialdea).

Zuhaitz genealogikoak aztertzeak argitasun zehatzak ematen dizkigu mundu osoko kokaguneez. Adibidez, Europan, azken Izotz Aroaren osteari buruzko ikerketak ustekabeko berrikuntzak ekarri ditu azken urte hauetan.

Ikertzaileak aztertzen ari dira Europarren jatorria, genotipoen hainbat mailatan. Oinarrizko printzipioaren arabera, denbora pasatu ahala aukeratutako DNA-ataletan eraiki diren eta beraien ereduetan jatorri-lerroak ordezkatzen dituzten mutazioak atzematen dira. Ondoren gaur egungo DNA molekuletatik historiaurreko DNA molekulen zuhaitz genealogikoa egiten da.

DNA zuhaitz genealogiko hori bat dator familia bateko zuhaitz genealogiko batekin, baina bi desberdintasun garrantzitsurekin: lehenengo DNAren zuhaitz genealogiko bat ez da familia zuhaitz genealogiko bat bezain zehatza, ez da beharrezkoa belaunaldi bakoitzean eta adar bakoitzean mutazio bereizgarri bat gertatzea. Bigarrenez, baina, DNAren zuhaitz genealogikoa 130.000 urte atzerantz gizakiaren hasierara heltzen da, familia-libururik onena baino askoz atzerago. Ezaguna den mutazio-abiaduratik berreraikitako arbaso bakoitzeko sorrerako adin absolutua DNAren zuhaitz genealogikoan kalkulatu ahal da.

Europako kolonizazioaren historia ikertu duten hainbat diziplinetako zientzialariak izan dira, besteak beste, Ingalaterrako Huddersfield unibertsitateko Martin Richards, Paviako unibertsitateko Antonio Torroni eta Hanburgoko unibertsitateko Hans-Jürgen Bandelt. Hemen aurkeztutako emaitzetarako mitokondrien genotipoak konparatu dira, hau da, zelulen organoak, zelularen nukleotik aparte berezko genoma duten eta oinordetzan amarengandik bakarrik jasotzen direnak (kromosomen zelulen nukleoetan, zati bat amarengandik eta beste bat aitarengandik datoz). Dagoeneko hamar milatik gora europarren artean egindako emaitzek emakumezkoen jatorri-lerroen informazioa ematen dute.

Adar eta adaxka ugariko zuhaitz genealogikoak agertu dira (ikusi 14. orrialdeko laukia). Bertan antzematen denez, gaur egungo europarrak ikertutako DNA atalei dagokienez oinarrizko motak (edo oinarrizko ereduak) kopuru txiki batetan zatitzen dira eta bakoitzean aldagai kopuru handiago batetik edo joko-motatik datoz.



MAURITIUS / PHOTOTHEQUE

HELGA LADE AGENTUR / H. R. BRAMAZ

Beste europarrekin alderatuta, euskaldunak ez dira ia ezertan desberdinak genetikoki. Laponiarrek asiarren antza dute, baina gehienbat europar oinordetza erakusten dute. Ehuneko 40k genoma mitokondrialaren "V" moldaera dauka, Euskal Herrian gainerako Europan baino ugariagoa.

Zuhaitz genealogiko bateko korapilo batetik izarren moduan adar asko irteteak esan gura du mutazio-ereduak asko ugaritu direla epealdi labur batean eta, beraz, korapilo-puntuen eredu genetikoen eramaileak azkar ugaritu direla. Horrela dakigu zein eredu genetikok hartzen duten parte populazio-hedatzeetan (ikusi 14. orrialdean zuhaitz genealogiko baten horrelako "izar" bat, adibide moduan).

Horren arabera, berdin dio Europako pertsona bat non bizi den edota bere aurreko emakumezkoa nongoa zen: erabilitako algoritmoak gizaki horren gene-ereduari hedadura tipo bat adierazten diola. Oinarrizko tipoak dituzten gizakiak hainbat lekutan aurkitu ahal dira, hau da, Europan zehar zabalduta. Interesgarria da tipo bakoitzak lurralde batean duen maiztasuna. Gure jardunbideak kalkulatzeko gailuak ondorengoen zuhaitz genealogikoaren gene-ereduak ezarri dituenez eta haien adinak ezagutzen dituenez, badakigu genotipo bakanak nola zabaldu diren Europan.

ARGAZKIAK: MICHEL PROUX ETA HENRI BIDAULT

Gaur egungo europar gehienen jatorria Izotz Aroan kontinentean bizi ziren gizakiak dira. Ehiztariak eta biltzaileak ziren, adibidez elur-oreinen ehiztariak (eskuinean), elur-oreinen larruz eta adarrez kamuflatua.

Europatik kanpokoko gizakien gene-ereduak hartu ditugu, bereziki Asia hego-mendebaldekoak eta Afrika iparraldekoak, europarren oinarrizko ereduak nondik datozen eta haien adina jakiteko.

Gure emaitzarik garrantzitsuena: gaur egungo europarren gutxienez hiru laurden antzinako europarretatik dator, emakumezkoen lerrotik, Ekialde Hurbiletik etorriak, azken izoztearen punturik gorena baino lehenago, duela 20.000 urtetik gora. Gure datuen arabera europar tipo zaharrenak orain dela 50.000-80.000 urte Asia hego-mendebaldean sortu ziren. Beraz, horien jatorria *Homo sapiens* modernoa da eta ez dira neanderthalen lerrokoak.

Kurt Tucholsky (1890-1935) idazle alemaniarrak "Pirinioetako liburu bat" delakoan kontatzen du:

"Aspaldi batean Montmorency-ko konte batek bere izena, bere noblezia, bere familiaren antzinatasuna, bere arbaso handiak goraipatzen zituen euskaldun baten aurrean. Euskaldunak erantzun zion: guk euskaldunok, konte jauna, ez daukagu jatorririk!"

Europarrek Izotz Aroko maximoa gainditu zuten ustez klima aldetik ez oso egokiak eta urriak ziren babeslekuetan, horietatik bi nagusiak Ukrainakoa eta Europaren hego-mendebaldekoa. Erakusten genuen moduan, Izotz Aroaren ostean –orain dela 10.000-15.000 urte– kontinentearen mendebaldea eta iparraldea berriro jendeztatu zuten populazioak, datu genetikoen arabera, Europaren hego-mendebaldetik etorri ziren batik bat; izan ere, euskaldunak eta gainontzeko Europaren mendebaldekoak gutxi gorabehera % 25 besterik ez dira desberdinak genetikoki. Gaur arte irudikatutakoaren alderantzizkoa edo kontrakoa esan nahi du horrek, hau da, Neolitoko etorkin berriek erlatiboki eragin txikia izan zuela europar populazioan.

Genoma mitokondrialaren oinarrizko genotipo biren emaitzak interesgarriak dira, guk "H" moldaera (edo "H" tipoa) eta "V" moldaera ("V" tipoa) deituak. "H" tipo nagusitzat har daiteke, europarren % 40 inguruk daramalako. Tipo hori Europan zegoen azken Izotz Aroan.

Europarren zuhaitz genealogiko bat

Europarren zuhaitz genealogikoaren adibide hau gizabanako askoren DNA mitokondrialak ikertuta egin da. Datu genetikoak Europako bost lurraldetatik datoz. Zuhaitz genealogikoaren sustraiak irudiaren erdiko gezi gorriaren lekuan daude: kasu honetan, europarren jatorri komuna Afrikan edo gizaki modernoa deitzen den horretan dago. Zenbat eta handiagoak biribilak, orduan eta gizabanako gehiagok darama kasuan kasuko DNA sekuentzia. Sarriago agertzen diren gen-ereduak hartutako bost lurraldeetan datoz. Irudiaren azpiko zatiak gizabanakoen taldeak dauzka, jatorriak alderatuta zaharragoak diren hedakuntzetara doazenak. Zuhaitz genealogiko honetan deigarriena goialdeko "izarra" da, bere inguruan gizabanako asko dituena. Horrek esan nahi du, bere erdigunetik gutxira (duela 10.000 – 15.000 urte) zabaltze handi bat egon zela.

THOMAS BRAUN / SPEKTRUM DER WISSENSCHAFT; ITURRIA: M.B. RICHARDS ET AL.



"V" bertsioak "baskoiak" direla esan liteke. Azken Izotz Aroan Espainiaren iparraldetik eta Frantziaren hegoaldetik (beste lerro batzuen antzera ere) gertatutako zabalkundea adierazten du. 16. orrialdeko laukiak erakusten du "V" tipo hori zela zabaldu zen antzina, eta gaur egun zelan banatzen den Europako populazioan.

Datu horien arabera, kontuan hartzekoa da gaur egungo europarren laurden batek inoiz ez duela emakumezkoen lerroko arbasorik izan, gutxienez 10.000 urte baino lehenagotik kontinentera etorri zirenen artean. Itxura guztien arabera Europako lehen nekazariak eta

abeltzainak izandako etorkin horien bultzada batzuk ezagutzen ditugu, esan nahi baita, hainbat adinetako lerro genetiko. Horrela, Europaren mendebaldean 10.000 urteko lerro bat bereizten da, eta Europaren erdialdean 6.000 urtekoa. Teoria berrienen arabera lehenengo nekazariak Mediterraneo itsaso ondotik etorri ziren –eta Atlantikoko kostatik Europarantz–, eta azken garaiko hizkuntza-ikerketek ere, ustez, hori pentsatzera garamatzate.

Gure genoma mitokondrialen ikerketek emakume-jatorriko lerroen informazioa bakarrik ematen dute. Horrek esan nahiko luke, gehienbat emakumeek beren oinordetza gaur egungo europar populaziora ekarri dutela eta beranduago, Neolitoko lehen nekazariekin, gehienbat gizonezkoek emigratu zutela berriro.

Y kromosomaren ikerketa genetikoek bakarrik argitu ahal izango dute hori, gizonezkoek bakarrik jasotzen duten kromosoma horrek gizonezkoen jatorri-lerroaren informazioa emango lukeelako. Y kromosomaren inguruko ikerketa berri batek –Paviako Unibertsitateko Ornella Seminok gidatua, nazioarteko lantalde batekin– lehen urratsak egin ditu. Ikertzaileek susmatzen zutenez, beraien emaitzek batez ere genoma mitokondrialekin bat egin ahal zuten: Europan, Y lerroen % 20 besterik ez omen da kontinentean agertutakoa. Era berean, Iberiar penintsulatik uhin bat zabaldu zen, agian. Datu horien denbora-ordena, baina, ez da oraindik ziurra.

Guk hemen Europako populazioari buruz adierazitakoak ez du lurralde bateko kasu berezi baten itxurarik. Azken batean, Izotz Aroa gertakari globala izan zen. Gutxienez genetikaren ikuspegitik, beste kontinenteetan antzerako ondorioak ikusten ditugu.

Asia eta Amerika kolonizatu zuten gizakien mitokondria-ikerketa bitan argi ikusten zen Izotz Aroan iparraldeko hemisferioa hustu eta gero birkolonizatu egin zela. (Asiako ikerketarako Hanburgoko unibertsitateko Arne Röhl, Pavia unibertsitateko Antonio Torroni eta Cambridge unibertsitateko Colin Renfrew aritu ziren lankidetzan. British Council-ek eta Deutschen Akademischen Austauschdienst-ek lagunduta burutu zen lan hau.)

Immigrazio-aldi bakarra

Adibidez, Ameriketako hainbat lurraldetako indioetan beti DNA mitokondrialaren lau tipo berak baieztatu genituen, Suaren Lurraldetik Kanadaraino. Lau tipo horien adina 25.000 urte ingurukoa da. Une hartan lehor zegoen Bering itsasartetik Ameriketarako immigrazio bakarra ondorioztatzen dugu, izotzaldiaren puntu gorena heldu aurretik, duela 20.000 urte, glaziarrak hegoalderako bidea oraindik oztopatzen ez zuen garaian.

Aldiz, Amerikaren muturreko iparraldean eta ipar-mendebaldean, eskimalen eta Nadene-enborren lurraldeetan, lau genotipoetatik bakarra dago, eta tipo horien aldaerak 10.000 urte besterik ez du. Izotz Aroaren bukaeran herri horiek iparraldeko lurraldeen ondotik zabaldu izanaren teoriak bat egiten du Joseph Greenberg hizkuntzalari amerikarraren Ameriketako hizkuntzen jatorriari buruzko tesiarekin.

Asiako ekialdean, berriz, iparraldearen eta hegoaldearen arteko mailaketa genetiko argi bat aurkitu genuen, genetistei lehenago ere harrigarria gertatu zitzaiena.

Korearen iparraldean dago muga, gutxi gorabehera. Asiaren hego-ekialdean DNA mitokondrialen sei espantsio tipo inguru lortu genituen, 30.000 urtetik gorakoak eta Amerikaren lehen kolonizazioan parte hartu zutenak.

Asiaren iparraldean, hortik abiatutako eta itxura guztien arabera 16.000 urte baino gehiagoko lerroak besterik ez da aurkitzen. Nonbait, gizaki haiek, Izotz Aroaren ostean iparraldera etorri ondoren, oraindik bizirik zeuden Siberiako ekialdean indioen arbasoen arrastoak ezabatu zituzten. Oraindik eztabaidagarria da ea Asiaren erdialdean eta iparraldean jendeztatze genetiko berriak hizkuntzari dagokion baliokiderik ote dagoen, Europan eta Ameriketan bezala. Galdera horietan, jakin daitekeenaren mugan ibiltzen gara. Baina, askotariko diziplinekin elkarlanean, mugak zabaltzen saiatzen gara.

Antzinako europarren hedakuntza

Sekuentzia genetiko bat nola hedatu zen

Europar guztien hiru laurdenek emakumezko-lerrotik Izotz Aro aurreko europar populazio batean du jatorria, eta euskaldunekin oso ahaidetuta daude. Izozte Aroaren ostean, genelerro batzuk Europako hego-mendebaldetik iparralderantz eta ekialderantz zabaldu ziren. Talde genetiko baten hedadura eta gaur egungo maiztasuna erakusten dute mapa bi hauek.



THOMAS BRAUN / SPEKTRUM DER WISSENSCHAFT; ITURRIA: A. TORRONI ET AL.

Ikerketa genetikoen arabera, Izotz Aroaren ostean, Iberiatik eta Frantziaren hegoaldetik jendeztatu zen Europaren mendebaldea eta iparraldea. Europa osoan zabaldutako DNA tipo batzuk, bereziki "H" eta "V", hortik zabaldu ziren. "V"ren hedadura ezkerretan eta gaur egungo banaketa eskuinean dator. Tipo hori gehienetan Euskal Herrian agertzen da, eta urrundu ahala bakantzen da. Gutxi gorabehera bost euskaldunetik batengan eta hogei alemanetik batengan agertzen da. Laponiarren artean (mapan ez dira kontuan hartzen) bi aldiz sarriago agertzen da, euskaldunen artean bezala. Baina Eskandinaviaren iparraldean gogor hedatu zen aldaera genetiko gazte bat da.

Autoreak: **Elisabeth Hamel** Munich-eko zientzietako kazetaria da eta gizakiaren historiaurrean eta protohistoriaren inguruan ari da lanean. Europako hizkuntzen historiaren inguruko bere ikerketa lanean, Europako kolonizazioan molekula genetikoen ikerketen eboluzio berriek eta Vennemann-en euskaldunei dagokien teoriak antza zutela ikusi zuen. **Theo Vennemann** Munich-eko Ludwig-Maximiliams unibertsitatean Alemaniar Filologia eta Hizkuntzalaritza Teoria irakaslea da. Beste batzuen artean, Matematika, Alemaniar eta Indoeuropar Filologia ikasi zituen. Kaliforniako Los Angeles unibertsitatean doktoretza egin eta bertan 1974. urtera arte hizkuntzalaritza katedra izan zuen. **Peter Forster** Cambridge unibertsitatean (Ingalaterran) dago lanean. Kimika eta Genetika ikasi ditu eta Hanburgoko unibertsitatean biologian doktoretza egin du.

Bibliografia

Volksetymologie und Ortsnamenforschung. Theo Vennemann-ek *Beiträge zur Namensforschung-en*, 34 Lib., 3 atala, 269. orri., 1999.

Basken, Semiten, Indogermanen. Theo Vennemann-ek *Sprache und Kultur der Indogermanen-en*. Innsbruck 119. orri., 1998.

A Signal, from Human mtDNA, of Postglacial Recolonization in Europe. Antonio Torroni-k et al.: *The American Journal of Human Genetics-en*, Lib. 69, 844. orri., 2001.